Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 24a, asteartea — 97 — Martes, a 24 de mayo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*0284/LI/2022 Foru Agindua, maiatzaren 14koa, 2022an, Urkulu urtegian, Arrain Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoko arrain espezieen harrapaketa arautzen duena.*

7/2018 Legeak, uztailaren 20koak, Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, aldatzen duenak, 64 ter artikuluan ezartzen du lege hau indarrean jarri aurretik inguru naturalean sartu diren ehiza edo arrantza-aprobetxamendurako katalogatutako espezieak ez daitezen hedatu data horren aurretiko banaketa-eremuen mugetatik kanpo, espezie horiek kudeatu, kontrolatu edo, hala balegokio, desagerrarazi ahalko direla eremu horietan modalitate guztietako arrantzaren eta ehizaren bidez. Modalitate horien barruan kirol-arrantzako federazioek arautuutakoak sartuko dira, baldin eta helburu hori jasotzen bada ehizari eta arrantzari buruzko arauetan.

Gipuzkoan dauden Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoko arrain espezieak, honako hauek dira:

— Amuarrain ortzadarra (Oncorhynchus mykiss).

— Zamoa (Cyprinus Carpio).

— Alburno (Alburnus alburnus).

— Eguzki perka (Lepomis gibbosus).

— Perka amerikarra (Micropterus salmoides).

— Perka (Perca fluviatilis).

Horren haritik, 2022ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko Araudia garatzen duen 0155/LI/2022 Foru Aginduaren bitartez, martxoaren 8koa, 10. artikuluan, ezartzen du dagokion Foru Agindu bidez onartuko dela Urkulu urtegian adierazitako espezie hauen aprobetxamendua arautuko duen berariazko araudia. Arrantza mota hau, espezie hauek kudeatu, kontrolatu edota desagerrarazteko ezartzen da.

Horregatik, arrantza aberastasunaren sustapena, Kontserbazioa eta erazko aprobetxamendua arautzen dituen Ibaietako Arrantzari buruzko 1942ko otsailaren 20ko Legeak eta 1943ko apirilaren 6ko Dekretuz onartutako Erregelamenduak, nahiz 2021eko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak, Euskadiko Natura-Ondarea Kontserbatzeari buruzkoak, eta Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak ezarritakoa betez, beharrezko egiten da 2022an Gipuzkoako Lurralde Historikoan, aipatutako espezie exotiko inbaditzaileak Harrapatzeko araudia garatzea.

Eusko Jaurlaritzaren 42/1985 zenbakiko Dekretu bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 21/1985 zenbakiko Foru Dekretuaren bidez biak martxoaren 5ekoak, gaiari buruzko transferentziak gauzatu ziren, eta ondorioz Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio gai hau arau bidez garatzea.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Orden Foral 0284/LI/2022, de 14 de mayo, por la que se regula la captura de especies piscícolas del catálogo de especies exóticas invasoras en el embalse de Urkulu durante el año 2022.*

El artículo 64 ter de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, modificada por la Ley 7/2018, de 20 de julio, establece que para evitar que las especies catalogadas como exóticas invasoras objeto de aprovechamiento piscícola, introducidas en el medio natural antes de la entrada en vigor de la presente ley, se extiendan fuera de los límites de sus áreas de distribución anteriores a esa fecha, su gestión, control o posible erradicación se podrá realizar, en esas áreas, a través de la caza y la pesca, y en todas sus modalidades, incluidas las reguladas por las federaciones deportivas de pesca, cuando este objetivo quede recogido en los instrumentos normativos de caza y pesca.

Las especies piscícolas del Catálogo Español de Especies Exóticas Invasoras presentes en Gipuzkoa, se relacionan a continuación:

— Trucha arco-iris (Oncorhynchus mykiss).

— Carpa (Cyprinus carpio).

— Alburno (Alburnus alburnus).

— Perca sol (Lepomis gibbosus).

— Black-Bass (Micropterus salmoides).

— Perca (Perca fluviatilis).

En este sentido, en el artículo 10 de la Orden Foral 0155/LI/2022, de 8 de marzo de 2022, por la que se desarrolla la normativa que regula el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022, indica que la normativa específica para su pesca en el embalse de Urkulu, como método de control, gestión y erradicación de dichas especies, se establecerá mediante la correspondiente Orden Foral.

Por ello, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Pesca Fluvial de 20 de febrero de 1942, por la que se regula el fomento, conservación y ordenado aprovechamiento de la riqueza piscícola y el Reglamento aprobado por Decreto de 6 de abril de 1943, así como por lo dispuesto en la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi y la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, se hace necesario desarrollar la normativa reguladora de la pesca de la especies exóticas invasoras citadas, durante el año 2022 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Tras producirse las transferencias por el Decreto del Gobierno Vasco número 42/1985 y el Decreto Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa número 21/1985, ambos de 5 de marzo, corresponde a esta última el desarrollo normativo en esta materia.

EK\CV GAO-I-2022-03162

Hortaz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Arrantza Kontinentalaren Kontseiluari entzunik, foru diputatu honek ondorengoa xedatu du:

*1. artikulua. Geografia eremua.*

Egungo banaketa-esparrutik harago zabaldu ez daitezen, debekatuta dago Gipuzkoan dauden arrain espezie exotiko inbaditzaileak Gipuzkoako ibai sarean harrapatzea, Urkulu urtegian izan ezik. Bertan, baimenduta dago haiek harrapatzea.

*2. artikulua. Arrantzatu daitezkeen espezieak.*

Urkuluko urtegian arrantzatu daitezkeen espezieak honakoak dira:

— Amuarrain ortzadarra (Oncorhynchus mykiss).

— Zamoa (Cyprinus Carpio).

— Alburno (Alburnus alburnus).

— Eguzki perka (Lepomis gibbosus).

— Perka amerikarra (Micropterus salmoides).

— Perka (Perca fluviatilis).

*3. artikulua. Arrantza aldiak, egunak eta orduak.*

1. Arrantzaldia: ekainaren 1etik irailaren 30era izango da.

2. Arrantza egunak: asteko egun guztiak izango dira.

3. Arrantza orduak: egunsentia baino ordubete lehenagotik, ilunsentira arte.

*4. artikulua. Harrapaketa kopurua eta neurriak.*

Ez da mugarik egongo harrapatu daitekeen arrain kopuruan eta tamainan ere ez da gutxieneko neurririk ezartzen.

*5. artikulua. Arrantza tresnak eta elementu lagungarriak.*

1. Arrantza tresnak: arrainak harrapatzeko, kanabera da arrantza-tresna baimendu bakarra. Arrantzale bakoitzeko bi kanabera onetsiko dira eta biak eskura izan beharko ditu arrantzaleak.

2. Tresna lagungarriak: baimenduta dago «salabardoa» erabiltzea, tresna lagungarri gisa. Kanaberarekin harrapatutakoak uretatik ateratzeko lagungarri gisa bakarrik erabiliko da tresna hori.

*6. artikulua. Beitak eta amuak.*

1. Debekatuta dago arrain biziak edo hilak beita bezala erabiltzea.

2. Debekatuta dago edozein beita natural ateratzea eta erabiltzea.

3. Ziprinidoak arrantzatzeko baimentzen diren beita bakarrak haziak, boiliak eta pelletak dira, edo antzeko plastikozko elementuak.

4. Garrangarik gabeko amuak erabiliko dira eta baimendutako mota bakarra hair sistema izango da.

5. Baimentzen da mazia botatzea carpfishing (arrain handiak) eta coup arrantza motetan, katapultaz, tiratzailez, ontziz, eskuz eta suziriz.

*7. artikulua. Neurri bereziak espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako zerrenda eta katalogoa arautzen dituen 630/2013 Errege Dekretuaren inguruan.*

1. 2. artikuluan zerrendatuko arrain espezieen harrapaketa, 630/2013 Errege Dekretuan ezarritakoaren araberakoa izan behar da.

2. Ezingo da inola ere uretara itzuli bizirik dagoen aipatutako arrain espezierik, eta berehala hil beharko dira harrapatutako guztiak, natura ingurunean zabaldu ez daitezen bermatzeko.

En consecuencia, oído el Consejo de Pesca Continental del Territorio Histórico de Gipuzkoa, este Diputado Foral ha dispuesto:

*Artículo 1. Ámbito geográfico.*

Para evitar su dispersión más allá de su área de distribución actual se prohíbe la captura de las especies piscícolas exóticas invasoras presentes en Gipuzkoa en toda la red fluvial guipuzcoana, con excepción hecha del embalse de Urkulu, donde queda autorizada su pesca.

*Artículo 2. Especies pescables.*

Las especies que podrán pescarse en el embalse de Urkulu son las siguientes:

— Trucha arco-iris (Oncorhynchus mykiss).

— Carpa (Cyprinus carpio).

— Alburno (Alburnus alburnus).

— Perca sol (Lepomis gibbosus).

— Black-Bass (Micropterus salmoides).

— Perca (Perca fluviatilis).

*Artículo 3. Períodos, días y horas hábiles de pesca.*

1. Periodo hábil: del 1 de junio al 30 de septiembre.

2. Días hábiles: todos los días de la semana.

3. Horas hábiles: las comprendidas entre una hora antes del orto (amanecer) y el ocaso (anochecer).

*Artículo 4. Número de ejemplares capturables y dimensiones.*

No habrá límite en el número de ejemplares capturables ni talla mínima en la dimensión de las piezas.

*Artículo 5. Artes de pesca y elementos auxiliares.*

1. Artes de pesca: El único arte de pesca autorizado para la captura de peces es la caña de pescar. Solamente se admitirán dos cañas por pescador o pescadora, debiendo estar al alcance de la mano.

2. Elementos auxiliares: Se autoriza el empleo del elemento auxiliar llamado «sacadera» o «salabardo». Este elemento se empleará exclusivamente como ayuda para extraer de las aguas las capturas efectuadas con las cañas.

*Artículo 6. Cebos y anzuelos.*

1. Se prohíbe la utilización de peces vivos o muertos como cebo.

2. Se prohíbe el uso y la extracción de cualquier tipo de cebo natural.

3. Los únicos cebos autorizados para la pesca de ciprínidos serán las semillas, boíles y pellets o elementos plásticos que se les asemeje.

4. Los anzuelos serán con micro muerte y la única forma permitida será en sistema hair.

5. Queda permitido el cebado de las aguas en las modalidades de carpfishing y coup por medio de catapulta, tiradores, barco cebador, a mano, y con spomb.

*Artículo 7. Medidas específicas en relación al Real Decreto 630/2013 por el que se regula el listado y catálogo español de especies exóticas invasoras.*

1. La captura de las especies listadas en el artículo 2 ha de ajustarse a lo establecido en el Real Decreto 630/2013.

2. En ningún caso se podrá devolver al agua un ejemplar vivo de las especies señaladas, debiendo ser sacrificados inmediatamente para garantizar de este modo su no propagación por el medio natural.

EK\CV GAO-I-2022-03162

*8. artikulua. Espezie exotiko inbaditzaileak harrapatzeko behar diren agiriak.*

1. Ibai arrantza egin ahal izateko behar diren agiriak honako hauek dira:

— Ibai arrantzarako baimen autonomikoa.

— Dagokion urteko tasaren ordainagiria.

— NA edo pasaportea, eta 14 urte baino gazteagoen kasuan haien nortasuna frogatzen duen edozein agiri.

— Arrantza-pasea, hurrengo atalean arautzen dena.

2. Derrigorrez eguneko arrantza-pase bat lortu beharko da.

Arrantza-pasea pertsonala, besterenezina eta doakoa izango da. Arrantza-pasea esteka honen bidez lortuko da:

https://arrantza-paseak.aplikazioak.gipuzkoa.eus/

*9. artikulua. Arrainen bizitza babestea.*

Aipatutako espezieen arrantzan, aplikagarriak dira 2022ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalari buruzko araudia garatzen duen 2021eko martxoaren 9ko 0155/LI/2022 Foru Aginduak 8. artikuluan ezarritako debeku eta betebehar guztiak.

*10. artikulua. Arau-hausteak.*

Foru agindu honetako preskripzioak betetzen ez badira, ezbetetze motaren arabera, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legean aurreikusitako zigor araubidea ezarriko da, edo ehizako eta ibai arrantzako arau-hauste administratibo jakin batzuen kalifikazioa aldatu eta zigorren zenbatekoa handiagotzen duen 1989ko apirilaren 13ko 1/1989 Legean aurreikusitako araubidea.

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 2022ko maiatzaren 14a.—Jabier Larrañaga Garmendia, foru diputatua. (3162)

*Artículo 8. Documentación necesaria para el ejercicio de la pesca de especies exóticas invasoras.*

1. Los documentos necesarios para poder ejercitar la pesca fluvial son:

— Licencia autonómica de pesca fluvial.

— Justificante del pago anual de la tasa correspondiente.

— DNI o pasaporte, y en el caso de las personas menores de 14 años cualquier documento que acredite su personalidad.

— El pase de pesca que se regula en el punto siguiente.

2. Será obligatorio obtener un pase de pesca diario.

El pase de pesca será personal, intransferible y gratuito. El pase de pesca se obtendrá a través del siguiente enlace:

https://arrantza-paseak.aplikazioak.gipuzkoa.eus/

*Artículo 9. Protección de la fauna piscícola.*

En la pesca de las especies señaladas, son de aplicación todas las prohibiciones y obligaciones establecidas en el artículo 8 de la Orden Foral 0155/LI/2022, de 8 de marzo de 2022, por la que se desarrolla la normativa que regula el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022.

*Artículo 10. Infracciones.*

El incumplimiento de las prescripciones incluidas en esta Orden Foral estará sujeto, dependiendo de su naturaleza, bien al régimen sancionador previsto en la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, de Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, o bien al régimen previsto en la Ley 1/1989, de 13 de abril, por la que se modifica la calificación de determinadas infracciones administrativas en materia de caza y pesca fluvial y se elevan las cuantías de las sanciones.

*Disposición final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 14 de mayo de 2022.—El diputado foral, Jabier Larrañaga Garmendia. (3162)

EK\CV GAO-I-2022-03162